

{ txostena } Jose Angel Oria

TXILE

Ingurumenaren aldeko mugimenduak herrialdean inoiz izandako garaipenik handienak Patagonia salbatu du

%63

Herritarrek ondo hartu dute HidroAysenen inguruko erabakia. «Cadem Plaza Pública» izeneko inkestaren arabera, txiletarren %63k bat egiten dute Gobernuarekin, eta %27 baino ez daude erabakiaren aurka.

%80

Txiletarren %80k diote energia garestixeago ordaintzeko prest daudela, baina garbia, kutsadurarik gabea, izatea lortuz gero. Lehentasuna zein energiari eman? Herritarren %44k eguzki energia aukeratu dute; %21ek, haize energia; eta, %18k, hidroelektrikoa

Hilaren 10ean Txileko Ministro Kontseiluak HidroAysen proiektu erraldoiari ezezkoa ematea erabaki zuen. Azkenean, horrenbestez, bost zentral hidroelektriko berri Patagonian eraikitzea aurreikus- ten zuen egitasmoa hankaz gora botatzea lortu dute herritarrek. Ospatzeko moduko garaipena, ez baita ohikoa negozio egitea helburu duten ekimenen aurka- ko borrokan herrien interesek irabaztea.

GAUR8k behin baino gehiagotan begiratu dio HidroAysen proiektuaren aurkako zortzi urteko borroka luzeari. Gloria Baigorrotegui Santiagoko Unibertsitateko ikerlariak uste du gatazkaren bilakaeran eta emaitzan sekulako garrantzia izan dutela herritarrek, beraien lanak lortu baitu populazio txikiko eremu bat kaltetu behar zuen proiektua Txile osoko agenda politikoan sartzea. «Ekintzaileek era zuzenean mobilizazioetan esku hartuta zein unibertsitateko adituekin eta profesionalekin aliantzak eginda lortu dute proiektuan eragitea. Adituen argudio teknikoaren bitartez, argi erakutsi dute oso proiektu txarra zela», adierazi du giza mugimenduen eta aurrerapen zientifikoen arteko lotura aztertu duen Baigorroteguiak.

BAKER ETA PASCUA IBIAIAK

2007ko urrian honela azaldu genuen proiektua: «Zentral hidroelektriko berriak 2009tik aurrera eraikiko lirateke, proiektuaren sustatzaileek diotenez. Baker eta Pascua ibaietan kokatuko lituzkete, 1.800 milioi euro inguru inbertituta. Endesa multinazional espainolak orain bi urte aurkeztu zuen egitasmoa. Hasierako proiektua aldatu beharra izan zuen ordea, Endesarentzat handiegia zelakoan. Horregatik, iaz Txileko Colbun enpresarekin elkar- te berri bat sortu zuen: HidroAysen. Horren jabetzaren %51 Endesaren esku dago, eta gainerako %49a Colbun- en esku».

«HidroAysenek ematen dituen datuen arabera, bost zen- tralen artean 2.750 megawatt sortuko lituzkete. Energia San- tiago hiriburura eramateko, 2.000 kilometroko luzera duten goi-tentsioko lineak eraiki behar dituzte, makina bat eskualde ze- harkatuz. Hasierako egitasmoen arabera, presen eraginez 9.300 hektarea urpean geratuko lirate- ke, jatorrizko herrien lur- rak gainera. Txileko Herrilan Ministe- rioak proiektua aldarazi egin zuen eta presak orain 5.910 hek- tarea urpetuko ditu, betiere az- kenean egiten bada», erantsi ge- nuen orain zazpi urte, herritar- asko proiektuaren aurka zegoela jakitun.

Herritarren nahia izan da era- bakigarria, eta nahi hori margo- tzen lagundu zuen 2007ko zen- baki hartan bertan azaldu genuen ekimen batek. «Txileko hegoaldeko elkar- te batek, he- rrialdean bertan eta Argentinan eraikitako zentral hidroelektri- koek eta goi-tentsio lineek az- ken urteotan eragin dituzten kalteei buruzko lekukotasunak bildu ditu, Endesak bultzatuta-

ko proiektu berriek benetan ekarriko dutenaz herritar- rak ja- be daitezen», genion.


«Herritarrek dokumental hau ikusten dutenean, berehala za- baltzen dituzte begiak», esan zien orduan kazetariei Marco Diaz Arancibia Patagoniako Iz- pirituaren Babesleen Elkarteko presidenteak. «Megarepresas, megaimpactos, megaverdades» izeneko filma aurkeztu ondoren egin zituen adierazpenok. Berak eta Carlos Garrido kazetariak, Pangué eta Ralco ibaietan eraiki diren zentral hidroelektrikoek Txileko Biobio eskualdean era- gin dituzten ondorioei buruzko lekukotasunak jaso zituzten 2007ko maiatzean. Baita Gene- ral San Martín izeneko presatik abiatzen diren goi-tentsioko li- neek Argentinako Patagonian, Chubut eskualdean, eragin di- tuztenei buruzkoak ere.

MOBILIZATZEKO GOGOA PIZTU

«Aysen eskualdeko herritarrei HidroAysen enpresak bertan eraiki nahi dituen bost zentral hidroelektrikoek eragingo di- tuzten kalteen inguruko infor- mazioa ematea zen egileen hel- burua. Webguneetan jasotako berrien arabera, sekulako arra- kasta izan dute, ez etekin ekono- mikoei dagokienez, ez baita hori nahi dutena, eragin duten mobi- lizatze-ko gogoarengatik baizik», idatzi genuen 2007an, mobiliza- tze-ko gogo horrek horrenbeste- ko arrakasta lortu behar zuela imajinatu ere egin gabe.

Geroztik egindako bidea ez da beti gozoa izan ordea. Ministro Kontseiluak aho batez eman dio orain ezezkoa HidroAyseni, bai- na 2011n ingurumen baimena eman zion egitasmoari Epaitegi Gorenak.

Pablo Badier egungo Ingu- rumen ministroak adierazi du herritarrek eta komunitateek emandako argudioak ontzat eman dituela Bacheleten Gober-



Urtetik Gabeko Patagonia erakundeak urteotan erabili dituen irudietako bat. GAUR8

nuak, batez ere proiektuaren bultzatzaileek beraiek aipatutako inpaktua edo herritarrekiko kaltea samurtzeko egitasmo egokirik ez izatea. Gainera, tramitazio prozesua bera salatu du agintariak, luzeegia izan delakoa. Maximo Pacheco Energia ministroak, berriz, Gobernuaren erabakia bere agenda energetikoarekin bat datorrela esan du, zentral hidroelektriko horiek beharrezkoak ez direla erantsiz.

Patricio Rodrigo Patagoniaren Defentsarako Kontseiluko idazkariak adierazi du Gobernuak proiektuari ezezkoa ematea beste erremediorik ez zeukala, «teknikoki bideraezina» delako, herritar asko aurka daudelako eta Gobernuaren Energia Agendak diotenaren kontra doalako.

TXILETARRAK, POZIK

Patagonian bertan, hala ere, sortu ziren proiektuaren aldeko elkarteak. Esaterako, Coyhaiquen egoitza duen talde batek eskutitza bidali dio Bachelet presidenteari, zentralak eraiki egin beharko liratekeela esanez.

Herritarrek ondo hartu dute HidroAysenen inguruko erabakia. «Cadem Plaza Pública» izeneko inkestaren arabera, txiletarren %63k bat egiten dute Gobernuarekin, eta %27 baino ez daude erabakiaren aurka. Hiru hilabete lehenago egindako beste inkesta baten tankerako datuak eskaini ditu ekainekoak. Hori bai, inkesta erantzun duten herritarren %52k onartzen dute Txileko energia gehiago behar duela, baina ez edozein energia iturrikoa. Txiletarren %80k diote energia garestixeago ordaintzeko prest daudela, baina garbia, kutsadurarik gabea, izatea lortuz gero.

Lehentasuna zein energiari eman? Herritarren %44k eguzki energia aukeratu dute; %21ek, haize energia; eta %18k, hidroelektrikoa. Gasa txiletarren %11k hautatu dute; nuklearra, %2k; eta, ikatza, %1ek. Txiletarren gehiengo (53) zentral nuklear bat herrialdean eraikitzearen aurka dago. Egungo argindarraren salneurria garestiegia dela dio herritarren %69k.

«Ministro Kontseiluaren erabakiak gardentasunaren eta era-



Energia hidroelektrikoaren aldeko HidroAysen konpainiaren propaganda.
GAUR8

4

Lau milioi dolar erabili dituzte urteotan proiektuaren aurkakoek. Endesak eta Colbunek jada 320 milioi dolar inbertituta zituztenen iritsi da Bacheleten Gobernuaren erabakia. 4 milioi dolar nahikoa izan dira milaka milioiko proiektua geldiarazteko. Hori bai eraginkortasuna!

ginkortasun administratiboaren alorrean hain beharrezkoa den aldaketa ipintzen du fokuen azpian. Estatuaren erakunde teknikoen zeregina indartu beharko luke», idatzi dute Elmostrador.cl egunkari digital aurrera-koiko editorialean.

URRATSA NORABIDE EGOKIAN

«Ingurumen gaien judizializazioa, kontu guztiak epaitegietara eramateko joera alegia, garapenaren aurka dauden ekintzaile sozialen produktu edo ondorio dela dioen pertzepzioa ez da bidezkoa; herrialdeari berari zein porrot egin duten enpresariei eragiten dien arazo baten ikuspegi manikeoa da hori. Ezbaian dagoen sakoneko kontua da proiektuen benetako jasangarritasuna, ezkutatutako ingurumen pasiborik gabe, ondo gobernatzearen ekologia eta legeak agintzen duena era zorrotzean betetzeaz gain. HidroAysen atzera bota izana seinale positiboa da», erantsi dute aipatu webgunekoek.

Hala ere, gatazkak epaileen eskuetan jarraituko du, atzera botatako proiektuaren sustatzaileek aurreratu dutenez. Ignacio Cruz Colbun konpainiako gerenteak esan duenez, «HidroAysen auzi luzea izan da orain arte eta aurrerantzean ere auzi luzea izaten ja-

rraitzea espero dugu». Txileko Gobernuak bere erabakia hartzeko garaian erabilitako argudioak aztertu nahi dituzte hemendik aurrera zer egin erabaki aurretik.

Edonola ere, Colbunek Gobernuarekin dituen harremanei eutsi nahi die: «Zure negozioarekin zerikusirik duten talde guztiak izan behar dituzu harremanak. Agintariak oinarritzko talde bat dira zentzu horretan, batez ere mahaiaren gainean lehen aldaketak daudenean. Orduan ondoan egon behar duzu, hizketan». Cruzek ez du uste joko arauak aldatu direnik, begirale batek baino gehiagok esan moduan. Sebastian Piñeraren eskuineko Gobernuak galdu egin zituen hauteskundeak eta agintari berriek hasiera-hasieratik adierazi zuten zeintzuk ziren beren lehentasunak.

BERRI ONA TURISMOARENTZAT

Politikari batzuek beren poza adierazi zuten Gobernuaren erabakiaren berri izatean. Patricio Walker senatariak nabarmendu zuenez, «Aysen da, seguru asko, Txileko eskualderik politena eta sekulako ahalmen turistikoa daukagu. Proiektua atzera bota izana berri ona da Aysenentzat. Patagonia eta Txile osoak ospatzeko moduko berria da».

Ivan Fuentes Gehiengo Berriko (Bacheleten aldeko koalizioa) diputatuak, berriz, HidroAysen atzera bota izana inflexio-puntu bat izango dela esan du. 2012an Aysenen zentral hidroelektrikoen aurka egin ziren protestaldietan ezagun egin zen arrantzale eta sindikalista PDC Alderdi Kristau Demokrataren zerrendan aurkeztu zen. «Hemendik aurrera egiten dugunak herritarren nahiekin lotuta egon behar du, eta natura errespetatu behar du. Energia politika komunitateekin batera diseinatu behar dugu; proiektu handi baten inguruan erabaki behar denean, herritarrei galde-tu behar zaie», adierazi du.

Izan dira, jakina, erabakiarekin bat egin ez duten politikariak ere. Ivan Moreira UDI eskui-neko alderdiko senataria ez du harritu berriak. «Bagenekien hasiera-hasieratik proiektua ez onartzeko borondate politikoa zegoela. Beraz, ez da ona orain agintariekin akats teknikoak aipatzeari», salatu du.

Bere iritziz, ekologistak dira «benetako irabazleak; eta kontsumitzaileak, galtzaileak, herrialdean energia proiekturik ez dagoen neurrian, argindarraren salneurriak gora egingo baitu». Moreirak ezinbestekotzat jotzen

du Txilek egun ekoizten duen energia kopurua bikoiztea.

«Energia gehiago behar dugu- la egia bada ere, garrantzia duen galdera beste bat da: nola sortu- ko dugu energia? Hor ikusiko genuke zein pisu duten energia aurrezteko neurriek, eraginkor- tasunak eta merkatuaren handi- tzeak», adierazi du Gloria Baigo- rotegui ikerlariak.

Moreirak eta konpainia han- dien interesak defenditzen di- tuzten guztiek itzalaldien auke- ra aipatu dute, herritarrak beldurtu nahian. Baigorrotegui- ri ez zaio hori bidezkoa irudi- tzen, egoera horretara iritsi au- rretik aukera asko baititu herrialdeak. «Energia politikak aurrera begiratu behar du derri- gorrez, eta ez horrenbeste bere- hala bildu beharreko irabaziei», esan du adituak.

URTEGIRIK GABEKO PATAGONIA

Oso bestelako balorazioa egin du Patricio Rodrigo Chile Am- biente elkarteko zuzendari eta Urtegirik Gabeko Patagonia mu- gimenduko eledunak. Berak egin duen irakurketaren arabe- ra, azkenean Gobernuak bat egin du giza mugimenduak az- ken zortzi urteotan esandakoa- rekin: «Jarrera hori beharko da aurrerantzean ere, aldaketak he- rritar guztien onurarako izan daitezen». Berak ez du zalantza- rik: herrialdeak energia iturri garbiak behar ditu, jasagarriak.

Gainera, “El Mercurio” egun- kariaren lana salatu du Rodri- gok, proiektuaren aldeko aho- tsak ezkutatu eta aldekoiei bakarrik egin dielako leku. Bere ustez, hedabide horren infor- mazioa «alderdikoia» izan da iraganean, eta ezaugarri bera du orain ere, batez ere HidroAysen geldiarazita energiaren prezioak gora egingo duela esaten duene- an. «Egunkari hori gezurretan aritu da lehen eta gezurretan jarraitzen du orain ere, enpresei mesede egiteko».

Rodrigo ondoan zuela eskaini- tako prentsaurrekoan Guido Gi- rardi senatariak nabarmendu zuenez, «denbora askoan kon- painien interesei eman zaie le- hentasuna, herritarren interesei eman beharrean; ea HidroAysen



HidroAysen proiektuaren aurkako mobilizazioak mehatxatutako ibaien ondoan (beheko irudian) zein hirietan (goikoan) egin dira azken urteotan. GAUR8





geldiarazita egoera hori bere onera ekartzen hasten gara». Urtegirik Gabeko Patagonia mugimenduaren lanaren garrantzia ere azpimarratu zuen.

Ignacio Cruz Colbun konpainiako gerentea, erdian, kontratu bat sinatzeko momentuan.
GAUR8

LAU MILIOI DOLAR

Ez da harritzekoa, giza mugimendu horrek nazioarteko elkartasuna ere biltzeko gauza dela erakutsi baitu urteotan. Ekaina bukatu baino lehen afari bat egin nahi dute HidroAysen proiektua geldiarazi dutela ospatzeko. Nazioarteko lagunak bertan eduki nahi dituzte. Esaterako, Robert Kennedy Jr. eta NRDC Natural Resource Defense Council AEBetako elkarteko kideak. Baita Douglas Tompkins, Kristine McDvitt emaztea eta Conservation Land Trust fundazioko zuzendaritzako kideak ere, horiek jarri baitzuten proiektuaren aurkako kanpaina ordaintzeko diru gehien.

Lau milioi dolar erabili dituzte urteotan proiektuaren aurka-koek. Endesak eta Colbunek 320 milioi dolar inbertituta zituzte-nean iritsi da Bacheleten Gobernuaren erabakia. 4 milioi dolar nahikoa izan dira milaka milioi-ko proiektua geldiarazteko. Hori bai eraginkortasuna!

Patagoniaren Defentsarako Kontseiluko zuzendaritzako kideek uste dute ezinezkoa izango dela tankerako kanpaina bat berri-ze egitea. Izan ere, urteotan ingurumenaren aldeko zein bestelako 80 erakunde ingururen sostengua lortu dute Txilen bertan. Nazioarteko laguntza ere aipatzeko modukoa da. Baina ga-

rrantzitsuena Txile osoko herri-tarren babesa izan da, Gobernuak ere oso kontuan hartzen duena, herritar horietako askoren botoa lortu baitzuen.

«Ingurumenaren aldeko mugimendua indartuko du garaipen honek, HidroAysen herrialdeko proiekturik adierazgarriena baitzen», esan du Manuel Baquedano Ekologia Politikoaren Institutuko zuzendariak. Bere iritziz, HidroAysen geldiarazita energia politikaren eredu baten aurkako mezu argi bat plazaratzen da. Eredu horrek oso esku gutxitan uzten du energia sortzea.

LANEAN JARRAITU BEHAR

Hori bai, giza mugimenduek lanean jarraitu beharko dute aurrerantzean ere. Izan ere, alde batetik, Endesak eta Colbunek proiektua aurrera atera nahian jarraitzen dute oraindik ere, eta, bestetik, Patagonia mehatxupean duten beste proiektu batzuk ere mahaiaren gainean daude uneotan.

Bestalde, begirale batzuek uste dute ingurumenaren aldeko mugimenduak Txileko Uren Kodearen aldaketa exijitu behar duela orain, egun indarrean da goen legediak (1981ekoa) ez baitu giza eskubidetzat hartzen ura. Kode berriak Estatuari eman beharko lioke urarekin zer egin erabakitzeko ahalmena. Hurrengo urratsa litzateke Konstituzio berria egitea. Bacheletek testu berria egin nahi du. Aukera ezin hobea ura, negozio egiteko aukera izan beharrean, giza eskubide bihur dadin.

Erreferenduma?

Unai
Belaustegi

Orainsu Juan Carlos Borboikoak abdikatu egin du, eta Estatuan monarkiaren aurkako oihuak hasi eta hazi egin dira. Erregeak bere semearen mesedetan tronuari uko egin eta berehala, errepublikaren aldeko aldarriak ugaritu dira leku askotan. Errepublika eskaerekin batera, aldarrikapen demokratikoak azaleratu dira. Jendea kalera atera da, estatu egitura bezala monarkia edo errepublika nahi dugun erabaki behar dugula eskatzeko. Halako aldarriak ongi iruditzen zaizkit, finen, jendeak dituen kezka adierazteko balio dutelako. Baina ikuspuntu politiko-filosofikotik begiratuta, errepublika edo monarkia erreferendumak zentzurik ez duela esatera ausartzen naiz.

Ez dakit munduaren historia luze-zabalean sekula errege bat erreferendum bidez aukeratua izan den. Ezetzean nago. Erregea bada, menpekoak daude, eta beraz, demokraziak eskatzen duen herriaren edota guztiak berdina izatearen ideia joko kanpo geratzen da, erregea ez baita herritar bat gehiago. Beste eskubide batzuk ditu, immunitate osoa du, armadaren buruzagi nagusia da (errege izendatu aurretik armadaren buru izendatu dute Felipe VI.a), eta, hori gutxi baltz, bere lekua bere semeak (edo alabak) jasotzen du, oinordekotza sistemaren bidez. Erregeei koroa gerrek eta Jainkoak jarri izan dizkiote beti, sekula ez hiritarrek.

Beraz, galdera erraza da: monarkia bera sistema demokratikoa ez bada, nola da posible demokraziaren adierarik nagusia den erreferendumak demokratikoa ez den eredu bat bermatzea? Azalpen logikorik ba al da hori azaltzeko?

Suposatzen dut Estatuak selezioak Brasilen irabaziko balu, agian zentzu gehiago izango lukeela guztiak eta Rajoy lasaiago egongo litzatekeela, baina, oraingoan, zirkuak ez du herriaren gosea aseko. Eta erreferendumik ez da egongo, «eskerrik asko» dioen errege berria baitugu. •

info+

• **HidroAysen proiektuari buruzko artikulua, GAUR8n:**

www.gaur8.info/edukia/k/20071020/43987/pr-esen-aurkako-borroka-film-dokumental-batek-endesa-multinazionalaren-gezurrak-agerian-utzi-ditu

• **Urtegirik Gabeko Patagonia taldearen webgunea:**

www.patagoniasinrepresas.cl/final/